



DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.  
COMPAÑIA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO  
DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA:

**BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEA**

**1. FASEA: PROBA PROFESIONAL TEORIKOA**

Donostia, 18/02/10

# 1. AZTERKETA MOTA

- ✓ Galdera Kaiertxo ez ireki proba hasten dela adierazten ez zaizun arte.
- ✓ Markatu Erantzunen Orrian zein Azterketa Mota egokitu zaizun (1 edo 2), horretarako dagoen lekuan. Egin kasu aztertzailearen jarraibideei.

**MARQUE CORRECTAMENTE**  
marque así en círculo  
así no marque  
x = 0 X /

**HOJA OFICIAL DE EXAMEN PARA PRUEBA DE RESPUESTAS ALTERNATIVAS**

Cumplimente el cuestionario solo con lápiz (preferiblemente 2HB) o con bolígrafo azul o negro tipo clásico. Evite plumas, rotuladores y tintas especiales

**MUY IMPORTANTE**  
Lea las instrucciones en el dorso de este documento.

**tipo de examen**  
1 2 3 4

**RESPUESTAS**

1	(A)	(B)	(C)	(D)	26	(A)	(B)	(C)	(D)	51	(A)	(B)	(C)	(D)	76	(A)	(B)	(C)	(D)	101	(A)	(B)	(C)	(D)	126	(A)	(B)	(C)	(D)	151	(A)	(B)	(C)	(D)
2	(A)	(B)	(C)	(D)	27	(A)	(B)	(C)	(D)	52	(A)	(B)	(C)	(D)	77	(A)	(B)	(C)	(D)	102	(A)	(B)	(C)	(D)	127	(A)	(B)	(C)	(D)	152	(A)	(B)	(C)	(D)

**DATOS PERSONALES**

- ✓ Galdera bakoitza eta dituen erantzun aukerak ondo irakurri ondoren, egokitzat hartzen duzuna markatu behar duzu Erantzunen Orrian.
- ✓ ERANTZUNEN ORRIAN MARKATUTAKO ERANTZUNEK BAKARRIK BALIO IZANGO DUTE ZUZENTZE ONDORIOETARAKO.

<b>1</b>	<b>Errepide bateko erreiak halakotzat hartu ahal izateko, luzetarako markek mugatuak egon behar dute</b>
A	Egia
B	Gezurra, lerroek mugatuak egon daitezke ala ez
C	Egia, eta noan lekura joateko gehien komeni zaidanetik joan naiteke
D	Egia hiri bidean baina gezurra hiri artekoan

<b>2</b>	<b>Hiri bideetan seinaleztatutako autobus geltokietan:</b>
A	Autobusak ateratzeko lehentasuna du datozen ibilgailuen aurrean.
B	Beste ibilgailuek ateratzen utzi behar diote, eta gelditu ere egin behar dute hala behar izanez gero
C	Beste ibilgailuek ateratzeko bidea erraztu behar badiote ere, autobusak ez du atera behar horrekin istripua eragin badezake
D	Erantzun guztiak zuzenak dira

<b>3</b>	<b>Herrian gutxieneko abiadura da:</b>
A	Herrian ez dago gutxieneko abiadurarik
B	20 km/orduko
C	Era horretako bideetarako generikoaren erdia
D	Erantzun bakar bat ere ez da zuzena

<b>4</b>	<b>Bi ardatz baino gehiagoko autobus baten gehieneko luzera da ...</b>
A	13,5
B	15
C	16
D	18

<b>5</b>	<b>Zirkulazio Araudi Orokorraren arabera, halako gisa seinaleztatuta dagoen bus erreia erabil dezakete:</b>
A	Hiri autobusek
B	Garraio kolektiboko ibilgailuek
C	Hiri autobusek eta taxiak
D	Hiri autobusek, taxiak, zikloak eta ziklomotorrek

<b>6</b>	<b>Seinale bidez abiadura orduko 30 km-ra mugatua duen hiri bide batean, zein da gutxieneko abiadura?</b>
A	15 km/orduko.
B	20 km/orduko.
C	25 km/orduko.
D	Hiri bidean ez dago gutxieneko abiadurarik

<b>7</b>	<b>Olio zirkuituaren argi pilotua piztuta gelditzen bada motorra martxan dagoenean, adierazten digu...</b>
A	Zirkuituan presio txikia dagoela
B	Presioa egokia dela
C	Zirkuituan presio handiegia dagoela
D	Olioaren maila baxu dagoela

  

<b>8</b>	<b>Edari alkoholdunaren kontsumoak, kopuru txikiak izanda ere, zein ondorio sortzen ditu?</b>
A	Arriskuak hobeto sumatzen dira
B	Erreakzio denbora murrizten du
C	Erreakzio denbora handitzen du eta inguruaren pertzepzioa aldatzen du
D	Oso kopuru txikian ez du inolako eraginik gidatzeko

  

<b>9</b>	<b>Autobusa gidatzen ari bazara, trafiko agenteek noiz eska diezazukete alkoholemia proba egiteko?</b>
A	Trafiko arau hausteak egiteagatik jarritako salaketaren ondorio gisa soilik
B	Edozein momentutan, legean jasotako zirkunstantziak baldin badaude
C	Trafiko istripu baten zuzeneko erantzulea izatean bakarrik
D	Horretarako jarritako kontrol batean bakarrik

  

<b>10</b>	<b>Autobusa gidatzen ari bazara, jakin behar duzu ibilgailuen M3 kategoria dagokiela...</b>
A	Pertsonak garraiatzen dituzten eta gutxienez lau gupil dituzten ibilgailu motordunei
B	Pertsonak garraiatzen dituzten eta 17 plaza baino gehiago eta 3.500 kg-ko masa baino handiagoa dituzten ibilgailu motordunei
C	Pertsonak garraiatzen dituzten eta, gidariarenaz gain, 8 plaza baino gehiago eta 5.000 kg-tik gorako BGM (Baimendutako Gehieneko Masa) dituzten ibilgailuei
D	Autobus diskrezionalei

  

<b>11</b>	<b>Bidegurutze batera iristean semaforo bat dugu berdean eta haren ondoren eta bidegurutzearen aurretik STOP seinale bat, Zer egin behar dugu?</b>
A	Gelditu egin behar dugu, Stop seinalea murriztaileagoa baita
B	Ez dugu gelditu behar, argi berdeak lehenasuna ematen baitigu bidegurutzean
C	Zeharkako bidetik ibilgailuren bat hurbiltzen ari bada bakarrik geldituko gara
D	Erantzun bakar bat ere ez da zuzena

<b>12</b>	<b>Biribilgune batera iristean ikusi dugu txirrindulari talde handi bateko lehen kideak sartu direla hartan, zer egin behar dugu?</b>
A	Lehentasuna duten ibilgailuak balira bezala jardungo dugu
B	Barruan daudenei igarotzen utziko diegu eta ahal dugunean sartu egingo gara
C	Talde osoari igarotzen utzi behar diogu gu sartu baino lehen
D	Haiek gelditu egin behar dute, gure ibilgailua garraio publikokoa baita

<b>13</b>	<b>Zenbat puntu kentzen dira STOP seinalea ez errespetatzeagatik zigortzean?</b>
A	Ez da punturik kentzen
B	2 puntu
C	3 puntu
D	4 puntu

<b>14</b>	<b>Segurtasun uhala nahitaezkoa da autobus gidari guztientzat</b>
A	Gezurra
B	Egia
C	Hiri arteko bide zatietan bakarrik
D	Gezurra, autobus guztiek ez baitaramate uhala

<b>15</b>	<b>Zirkulazio Araudi Orokorren arabera, bidaiari batek animalia txiki bat badarama, eta hura itsu txakurra ez bada, zer egin dezake gidariak?</b>
A	Soilik sarrera debekatu
B	Sarrera debekatu nahiz ateratzeko agindu
C	Ezer ez, animalia txikiak eraman baitaitezke
D	Nagusiari arazoaren berri eman

<b>16</b>	<b>Hiri bideko biribilgune batean, autobusa luzetarako markez mugaturiko zein erreitik edo erreitatik joan daiteke?</b>
A	Bere helmugara iristeko egokienetik
B	Eskuinetatik, eta aldamenekoa aurreratzeko erabili
C	Eskuinetatik bakarrik
D	Bi erreiko biribilguneetan eskuinetatik eta hiru edo gehiagokoetan eskuinen dauden bietako edozeinetatik

<b>17</b>	<b>Hiri autobusa ibilgailu motorduna da</b>
A	Egia baina ez da automobila
B	Egia eta gainera automobila da
C	Egia eta gainera ibilgailu berezia da eraikuntzagatik
D	Gezurra

<b>18</b>	<b>Ibilgailuaren atzealdean jarritako hondo hori eta ertz gorriko plaka islatzaile batek ala bik, adierazten dute...</b>
A	Ibilgailuak gutxienez 12 metro neurtzen dituela
B	Ibilgailuak 12 metro baino gehiago neurtzen dituela
C	Ibilgailu artikulatua dela
D	Ibilgailuak 15 metro baino gehiago neurtzen dituela
<b>19</b>	<b>Bi zirkulazio norabideko hiri bide batean oztopo batekin egiten dugu topo gure erreian, Zer egingo dugu?</b>
A	Estuguneak arautzen dituzten araei jarraituko diegu
B	Garraio publikoa izatean aurkako norabidean datozen ibilgailuek igarotzen utzi behar digute ahal bezain pronto
C	Lehentasunik ez izan arren, aurkako erreia hartu ahal izango dugu oztopoa gainditzeko, arriskurik sortu gabe
D	Gainerako ibilgailuak gure presentziaz ohartaraziko ditugu, gelditu eta igarotzen uztera behartuta baitaude
<b>20</b>	<b>Bidaiarien garraio publikoaz ari garela, adieraz ezazu zein den baieztapen okerra</b>
A	Gidaria arduratuko da bidaiariak jarrera egokian egon daitezen
B	Jarrera egokia mantentzeaz arduratuko da gidaria
C	Mugitzeko askatasuna izan behar du gidariak
D	Gidaria arduratuko da bidaiariek uhala jarrita eraman dezaten halakorik duten ibilgailuetan
<b>21</b>	<b>Merkezabal kaleko herritar batek zein linea hartu behar du Easo kaletik bere etxera joateko, igandean, ahalik eta modu zuzenenean eta autobusez aldatu gabe?</b>
A	B4 linea
B	32 linea
C	Igandean ezin da ibilbide hori egin autobusez aldatu gabe
D	19 linea
<b>22</b>	<b>42 zenbakiko autobus lineak, honako kale honetako biztanleei ematen die zerbitzua...</b>
A	Atarizar kalekoei
B	Urola ibaia kalekoei
C	Txurkoene kalekoei
D	Darieta bidekoei

<b>23</b>	<b>Bidaiari batek zein autobus linea har dezake Galtzada Nagusian?</b>
A	8, 13, 14 eta 17 lineak
B	38, 40 eta 42 lineak
C	8, 33, 40 eta 42 lineak
D	29, 33, 40 eta 45 lineak

<b>24</b>	<b>Gaueko zerbitzu hauetako zeinek ematen die zerbitzua Jauregi kaleko biztanleei?</b>
A	B12
B	B2
C	B8
D	B7

<b>25</b>	<b>Zein kaletatik doa 43 zenbakiko autobus linearen ibilbidea?</b>
A	Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea eta Zarautz kalea
B	Izostegi pasealekua, Lugaritz pasealekua, Illarra bidea eta Igara bidea
C	Madril hiribidea, Bernardo Estornes Lasa kalea eta Pio Baroja pasealekua
D	Munto kalea, Zorroaga pasealekua eta Errondo pasealekua

<b>26</b>	<b>39 zenbakiko autobus lineak zerbitzu ematen dio...</b>
A	Zorroaga pasealekuari
B	San Roke kaleari
C	Urgull kaleari
D	Molinao bideari

<b>27</b>	<b>14 zenbakiko autobus lineak zenbat geldialdi egiten ditu Jose Eloseggi Alkatearen hiribidean, Gipuzkoa plazarako norabidean?</b>
A	2 geldialdi
B	4 geldialdi
C	5 geldialdi
D	6 geldialdi

<b>28</b>	<b>Zein autobus linea hartuko zenuke Errotazar bidean dagoen zure etxetik hiriko erdialdera joateko?</b>
A	16 linea
B	25 linea
C	13 linea
D	29 linea

<b>29</b>	<b>Zein lineatan topo egin dezakete Izaburu kalean bizi den herritar batek eta Urnieta kalean bizi den batek Ospitalerako bidean?</b>
A	Linea berean ezin dute topo egin
B	17 linea
C	28 linea
D	35 linea

<b>30</b>	<b>Erabiltzaile batek Iribar plazan zein autobus linea hartu beharko du Zurriola hiribideraino joateko lanegun batean?</b>
A	40 linea
B	33 linea
C	33, 40 edo 43 linea
D	Zuzeneko ibilbidea duen linearik ez dago

<b>31</b>	<b>Zein autobus linea ez da gelditzen Askatasunaren hiribidean?</b>
A	37 linea
B	40 linea
C	33 linea
D	B2 linea

<b>32</b>	<b>Zein kaletatik doa 28 zenbakiko autobus linearen ibilbidea?</b>
A	Hernani kalea, Antso Jakitunaren hiribidea eta Mikeletegi pasealekua
B	Madril hiribidea, Eustasio Amilibia kalea, San Martin kalea
C	Antso Jakitunaren hiribidea , Okendo kalea eta Javier Barkaiztegi kalea
D	Begiristain doktoarearen pasealekua, Katalina Erauso kalea eta Urbieta kalea.

<b>33</b>	<b>Beloka pasealekuan bizi direnek, zein autobus linea hartuko dute Aldapabide kalera joateko?</b>
A	Ez dago bi leku horiek lotzen dituen linearik
B	37 linea
C	17 linea
D	36 linea

<b>34</b>	<b>31 linearen Askatasunaren hiribideko geltokian Groserako norabidean, beste zein linea hartu ahal izango duzu geltoki horretan bertan?</b>
A	13 eta 33 lineak
B	14, 9 eta 8 lineak
C	8, 29 eta 36 lineak
D	8 eta 36 lineak

<b>35</b>	<b>Enpresako langileek tratu egokia izan behar dute erabiltzaileekin eta egiten ari den zerbitzuarekin loturiko laguntza eta informazio eskariei erantzun...</b>
A	Linearen burualdean
B	5 minutu baino gehiago irauten duten geldialdietan bakarrik
C	Uneoro
D	A eta B erantzunak zuzenak dira

<b>36</b>	<b>Donostiako bidaiarien garraio Araudiaren arabera, pertsona heldu batekin batera gehienez joan daitezkeen bost urtetik beherako adingabeen kopurua da:</b>
A	Bost urtetik beherako 2 adingabe, gehiago familia ugarizat hartzen baita
B	Bost urtetik beherako lau adingabe
C	Bost urtetik beherako sei adingabe
D	Bost urtetik beherako hiru adingabe edo zazpi urtetik beherako lau adingabe

<b>37</b>	<b>Mugikortasun mugatuko pertsonatzat jotzen dira:</b>
A	Soilik aulki gurpildunetan ibiltzen direnak
B	Zangoetan mugitzeko zailtasunak dituztenak
C	Arrapalak bezalako sartzeko gailuak behar dituztenak
D	Oro har, dituzten gorabehera pertsonalengatik, zutik bidaiatu ezin dutenak beren buruei edo hirugarrenei arriskurik eragin gabe

<b>38</b>	<b>Mugikortasun mugatua duten pertsonak, zein atetik sar daitezke eta atera daitezke ibilgailutik?</b>
A	Aurrekotik bakarrik
B	Beti erdikotik, huraxe baita arrapala duena
C	Erosotasun handiena ematen eta ahalegin fisiko txikiena eginarazten dietetik
D	Gidariak adierazten dietetik, huraxe baita zerbitzuaren arduraduna

<b>39</b>	<b>Geldialdi luzetzat jotzen da honako denbora hauek baino gehiago irauten duena:</b>
A	4 minutu baino gehiago
B	3 minutu baino gehiago
C	2 minutu baino gehiago
D	Linearen burualdekoak 4 minutu baino gehiago irauten badute

<b>40</b>	<b>Zoru baxuko autobusentzat inklinazio sistemak (belaunikatzea) erabili beharko dira ...</b>
A	Mugikortasun mugatuko pertsonak autobuseratzeko eta autobusetik ateratzeko
B	Aulki gurpildunak autobusean sartzeko
C	Soil-soilik adineko pertsonak eta ezintasunak dituztenak sartzeko
D	Gidariaren irizpidearen arabera, huraxe baita zerbitzuaren arduraduna



<b>41</b>	<b>Mugikortasun mugatuko pertsonatzat joko dira, besteak beste, ibilgailuen barnean plaza eta gune erreserbatuak erabiltzeko ondorioetarako, honako hauek:</b>
A	Bost urtetik beherakoak eta haien laguntzailea
B	Alor sentsorial (ikusmena, entzumena, mintzamina) edo intelektualeko zailtasunak dituzten pertsonak
C	Dituzten gorabehera pertsonalengatik, beren buruei arriskurik eragin gabe zutik bidaiatu dezaketenak, baina autobusera igotzeko zailtasunak dituztenak
D	A eta B erantzunak zuzenak dira
<b>42</b>	<b>Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako erreserburiko eserlekuak behar ez duenak okupatuak badaude ...</b>
A	Gidariak eskatuko du dagokien pertsonak okupa ditzatela eserleku horiek
B	Gidariak ikuskatzailea etortzeko eskatuko du okerreko lekuan eserita dagoena lekutik bidalarazteko
C	Gidariak udaltzaingoa etortzeko eskatuko dute
D	Gidaria ez da horren erantzulea eta ez da bere eginkizunen barnean sartzen, eta horrenbestez, gidatzen jarraituko du arreta galdu gabe eta gertaerari jaramonik egin gabe.
<b>43</b>	<b>Ibilgailuan etxe animalia txikiak eraman daitezke...</b>
A	Bai, aldez aurretik txartel berezia ordainduta, eta ibilbidearen amaieran zenbatekoa itzuliko zaie
B	Bai, baina doaneko txartela izeneko gaikuntza titulua beharko dute
C	Ez. 4 urtetik beherakoek bakarrik bidaia dezakete doan plazarik okupatzen ez badute.
D	Besoetan ondo helduta edo ontzi egokien barnean
<b>44</b>	<b>5 eta 18 urte arteko adin txikiko pertsona batek heldu baten laguntzarik gabe eta tarifak bateratzeko sistemako txartel pertsonalizatuarekin (MUGI txartela) bidaiatzen badu, ulertuko da ondoko hauen ardurapean bidaiatzen duela...</b>
A	Udalaren ardurapean
B	Dbus enpresaren ardurapean
C	Gidariaren ardurapean
D	Aitaren, amaren edo tutorearen ardurapean
<b>45</b>	<b>Gehienez zenbat haur kotxe edo/eta aulki eraman daitezke tolestu gabe 18 metroko autobus batean, beharreko baldintzak daudenean?</b>
A	Bi kotxe
B	Kotxe bat
C	Hiru kotxe
D	Behar direnak

<b>46</b>	<b>Bizikletak daramatzaten pertsonak erdiko atetik sartuko dira eta plataforman jarriko dira, uneoro behar bezala helduko die haiei, eta gehienez ere onartuko dira...</b>
A	Pertsona bakoitzeko bizikleta bat, eta ibilgailuan gehienez bi bizikleta aldi berean
B	Bi bizikleta pertsona bakoitzeko, bat haurrena edo txikia baldin bada
C	Pertsona bakoitzeko bizikleta bat, eta ibilgailuan gehienez hiru bizikleta aldi berean
D	Autobusean ezin da bizikletarik eraman, tolestuak daudenean eta 50 x 35 x 25 cm baino gutxiago okupatzen dutenean salbu

<b>47</b>	<b>Ibilgailuaren aurrerabideari aurka egiten dioten erresistentziak dira:</b>
A	Hidraulikoa, eolikoa eta marruskadura
B	Mekanikoa, fisikoa eta malda
C	Errodadura, malda eta aerodinamikoa
D	Marruskadura mekanikoa, zentrifugoa eta zentripetua

<b>48</b>	<b>Zein kanpo faktorek du eragina kontsumoan?</b>
A	Bide motak
B	Orografiak
C	Meteorologiak
D	Erantzun guztiak zuzenak dira

<b>49</b>	<b>Garraio publikoaren ezaugarriak lau taldetan sailkatzen dira kontuan harturik haiek betetzeak edo ez betetzeak zer-nolako eragina duen bezeroaren asebetetzean. Hona hemen:</b>
A	Puntuala, segurua, garbia, eraginkorra
B	Prezioa, baliabide teknikoak eta maiztasunak
C	Oinarrizkoak, proportzionalak, erakargarriak eta neutroak
D	Ez dago garraio publikoaren ezaugarrien sailkapenik

<b>50</b>	<b>Etengabeko hobekuntza zirkuituaren oinarriak honako hauek dira:</b>
A	Ikuskapena, ebaluazioa, berrikuspina, zigorra
B	Bidaiaria etengabe asebate behar den bezero gisa hartzea
C	Gero eta eraginkorragoak izango diren ibilbideak ebaluatzea
D	Planifikatzea, garatzea, kontrolatzea eta egokitzea.

**ERRESERBAKO GALDERAK**

<b>51</b>	<b>Hiri bide batetik goazela, txirrindulari bat aurreratu behar dugu horretarako aurkako norabidea hartuta aurreratzea debekatua dagoen tarte batean zeharkatuz. Zuzena da gure ekintza?</b>
A	Bai, beti
B	Ez, ezin dugulako aurkako norabidea hartu aurreratzea debekatua egotean
C	Bai, herri edo hiri barneko bide publiko eta erabilera komuneko bide pribatu guztietan
D	Erantzun bakar bat ere ez da zuzena
<b>52</b>	<b>Autobus batek bus erreia utzi dezake...</b>
A	Gidariaren irizpidearen arabera
B	Ezin da utzi amaitu arte
C	Bakar-bakarrik marka etenetatik
D	Norabidea aldatzeko, aurreratzeko, gelditzeko edo aparkatzeko
<b>53</b>	<b>Zein autobus linea har dezakezu Antzieta pasealekuan?</b>
A	26 linea eta 28 linea
B	31 linea
C	37 linea
D	Kale horretatik ez da inolako linearik igarotzen
<b>54</b>	<b>Arau orokor gisa, ez dira onartuko honako hauek baina neurri handiagoko fardelak...</b>
A	50 x 35 x 25 cm
B	200 x 100 x 50 cm
C	100 x 60 x 25 cm
D	Eserleku baten zabalerakoak eta zangoen gainean eramateko modukoak
<b>55</b>	<b>Sumatutako kalitatearen funtzionamendu eskema aztertuta, funtsezko lau helburu sortzen dira. Hauetako zein EZ da funtsezko helburua?</b>
A	Mekanismo "hartaile" guztiak aprobetxatzea, eta bereziki, bezeroei entzutea eta atsekabeak lantzea informazio iturri gisa
B	Titularren, operadoreen eta hirugarrenen artean erantzun koordinatuak ematea sistemaren funtzionamenduan eragina izanez
C	Prestazioen oinarritzko ezaugarrien kontrol homogeneoa bermatzea
D	Okerrak zuzentzeko prebentzio neurriak eta ez betetzeengatik disuasio zigorak ezartzea.